

Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren hirugarren kanporaketa bihar izango da, Ereñotzun

Bigarren kanporaketa ikaztegietan egin zen, eta bihar, hirugarren kanporaketa egingo da Ereñotzuko Ur Mia elkartearen. Lehenago afaria egingo da, eta gaur da txartelak erosteko azken eguna.

EREÑOTZU ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Aurreko astean jokatu zen Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 2garren kanporaketa ikaztegietan. Eta bihar ospatuko da Eskolarteko Bertsolari Txapelketako 3garren kanporaketa, Ereñotzuko Ur Mia elkartearen, hain zuzen.

Txapelketa hau, Gizpuzkoako Bertsozale Elkartek antolatzen du, eta guztira 15-18 urte bitarteko 16 bertsolari gazte hartzen dute parte, 3 kanporaketetan.

Aipatu moduan, jadanik 2 kanporaketa egin dira, lehena



Ane Zubia sailkatu zen ikaztegietan, Lasturreko finalerako. Argazkia: 'bertsozale.eus'

Oñatin, eta bigarrena ikaztegietan, azken kanporaketa bihar izango da Ereñotzun. Finalari dagokionez, Lasturren egingo da, apirilaren 3an.

Biharko saioa, afari baten bueltan girotuko da, eta elkarrean bertan egingo da. Afaria

20:00ak aldera hasiko da, eta bertsoei 22:00etan emango zaie hasiera. Afarirako txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian daude salgai, 12 euroan, eta gaur da azken eguna sarrera hauek erosteko. Saiorako berriz sarrera libre da, beraz ez da sarrerarik

erosi behar.

Bihar Ereñotzun izango diren bertsolariak: Amets Aizpuru, Aner Peritz, Jon Mendiluze, Nerea Isusi, Olatz Zuazubiskar eta Uxue Ostolaza. Informazio gehiagorako, www.bertsozale.eus/eu/gipuzkoa. **K**

Setien eta Altzueta gaur elkarren kontra kantxan, B taldeko aurreneko bueltari bukaera emateko

Galarretan gaur 16:00etan jokatuko diren partiduetan bigarrena izango da Sagardoaren Txapelketakoa. Larunbatekoa, Gaztañagak irabazi zuen Bereziartuaren aurrean.

HERNANI ERREMONTEA

Sagardoaren Txapelketako hirugarren erremonte partidua jokatuko da gaur Galarretan, 16:00etan hasita izango den bigarren partiduan. Setien eta Altzueta ariko dira elkarren kontra; hau da, Ansa II eta La-

rrañaga, Juanenea eta Garcesen kontra. Azken honek Agirrezabalaren ordezkari jokatuko du gaur, oraindik ez baitago jokatzeko moduan.

Hasiera batean, badirudi Setienen aldeko bikotea dela faborito, baina txapelketako aurreneko bi partiduetan izan da

ezustekorik, eta beraz, edozer gerta liteke gaur ere.

Gaurkoarekin, B taldeko lau bikoteak lehian sartuta egongo dira. A taldean, berriz, Gurutzeta sagardotegiaren aldeko Goikoetxea V eta Endika, eta Larre Gainen aldeko Ezkurra II eta Zubiri goizuetarra falta dira. Larunbatean ekingo diote lehiari.

Lau eta batekoa, larunbatean ere

Pasa den larunbatean Gaztañagak eta Bereziartuak neurtu zituzten indarrak A taldean;

Segurolak eta Ionek, eta Urriazak eta Arruarteak. Aurrenekoak izan ziren garaile, 40 eta 34, eta, beraz, Gaztañagak lau puntu pilatu zituen, eta Bereziartuak, bakarra.

Puntuazioari dagokionez, emaitza hauxe bera izan zuen txapelketako aurreneko partiduetan ere; lau eta batekoa. Barrenetxea IV hernaniarrak, Aldaberekin, 35 eta 40 galdu zuen Matxin III eta Azpiroren kontra, eta beraz, B taldeko Oialume Zarrek puntu bakarra pilatu du, eta Petritegik, lau. **K**



Parekidetasun maila, aztergai

HERNANI HEZKUNTZA PLATAFORMA

Arratsaldeko 17:30etan hasita, Hezkuntza Eskola saioa izango da gaur udaletxean, Hezkuntza Plataformak antolatuta. Oraingoan, Irantzu Jauregi Artola, Berdintasun teknikaria gerturatuko da, Hernanin lehen baino parekideago ote den aztertzeko.

Posta bidezko botorako, aukera

HERNANI EH BILDU

Hernaniko EH Bilduren bilgunea irekiko da gaur, posta bidezko bozka eman nahi duenari laguntzeko. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo da Andre kalean kokatuta dagoen bilgunea irekita. Datorren asteazkenean ere irekiko dute bilgunea, posta bidezko botoa ematen laguntzeko.

Auzo Batzarra gaur, Ereñotzun

EREÑOTZU AUZO BATZARRA

Gaur arratsaldeko 19:00etarako jarri dute zita Ereñotzuko Auzo Etxeko kultur aretoan, auzo batzarra egiteko asmoz. Eta bertan, futbol zelaiaren eraberritzea izango gai garrantzitsua. Bertaratzeko deia luzatu dute, herriaren interesa jakitea komenigarria dela azpimarratuz.

'Ekologista naiz baina...' gaurkoan

ASTIGARRAGA HITZALDIA

Gaur arratsaldeko 18:30etan, *Ekologista naiz baina...* liburuari buruzko hitzaldia antolatu da kultur etxean. Gorka Egiak idatzitako liburu honetan, gizarte-ko kontsumo ohituren inguruan jarduten da, eta eragina egiteko asmoa ere badu. Egileak kontsumo jasangarrirako oinarriko gida praktikoa honen berri emango du.

Sagardo naturala

ALBERRO SAGARDOTEGIA

Tolara sagardotegia

943 55 00 19

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

SAGARDOA

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

Asteartetik igande eguerdira irekita

Osiñaga auzoa, Hernani Tel. 943 55 68 94

EGURDIA GAUR Lainotzera egingo du ostegunean eta egunaren amaieran euritara joko du. Arratsaldeak aurrera egin ahala euria egingo du. Iparaldeko haizearekin tenperaturak jaitsi egingo dira. **Min.10° / Max.15°**

BIHAR Bihar egunak egonkortzera egingo du. Ipar partean giro motelarekin eta umelarekin hasiko dugu eguna, baina ez du euririk egingo eta orokorrean tenperatura apur bat jaitsi egingo da. **Min.8° / Max.13°** (euskaletan)

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETA UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

USUO JARMURAZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

PREZIO

Hernaniko errugbi taldeko jokalaria atxilotu dute, sexu abusua egotzita

Astelehenean, Hernaniko errugbi taldeko kide bat atxilotu zuten, sexu abusua egotzita. Hernaniko errugbi elkarteak zuzendaritzak ere neurriak hartu ditu, eta jokalaria klubetik botatzea erabaki du.

HERNANI GERTAERA

Astelehenean atxilotu zuten Hernaniko errugbi jokalaria, igande goizean egindako sexu abusua egotzita. Atxilotzeaz gain, Hernaniko errugbi elkarteak zuzendaritzak, ez ohiko bilera bat egin du, eta klubetik

kanporatzeko agindua luzatu du.

Hernaniko errugbi elkarteak zuzendaritza batzordeak helarazitako mezua

Hernaniko errugbi elkarteak zuzendaritza batzordeak honako adierazi du: "Ohar honen

bitartez jendarteari adierazi nahi diogu asteburuan HCREko jokalaria batekin gertatutakoaren bertsio ezberdinak aztertu ondoren astelehenean Zuzendaritza Batzordeko ez ohiko bilera bat antolatu genuela eta bertan kautelazko neurri bezala Loketi Manu jokalaria Clubeko azpiegituratik kanpo uztea erabaki dugula. Beraz, hemendik aurrerako ez ohiko jokalaria honek ezingo ditu inundi ere Clubeko instalazioak erabili, Clubeko azpiegitura guztietatik kanpo geldituz. HCREren aldetik auzia epaileen esku gelditzen da." **K**

Hernaniko hainbat kale moztuta, larunbateko lasterketarik

Etzi, JOCC txirrindulari elkarteak antolatutako alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketa izango da Hernanin, arratsaldeko 16:00etan.

HERNANI JOCC TXIRRINDULARITZA

Larunbatean, JOCC Txirrindularitza taldeak antolatutako, alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketa egingo da Hernanin. Arratsaldeko 16:00etan emango zaio hasiera lasterketari.

Hori horrela, bizilagunengan, arratsaldeko 15:30etatik 17:00etara bitartean trafiko arazoak eragin ditzake, eta horregatik antolatzaileek honako adierazi dute, «larunbat arratsaldez autoz mugitu behar du-

ten hernaniarrei aipatutako ordutegietan, tarteka kale batzuk moztuta aurkituko dituzte, eta ahal duzuen heinean, lasterketa hasi aurretik edo ondoren irteten saiatzeko ere eskatzen dugu».

Etzi izango den lasterketan, hainbat taldek hartuko dute parte, hala nola, Hernaniko JOCC, Donosti Berri, Irune, Oarsoaldea, Allerru, Astigarraga, Buruntzapipi, Zarautzara eta Zumaiak. «Guztira 100 bat txirrindularik hartuko dute parte larunbateko lasterketan».

Aurreko urteetako ibilbidea

Gainontzeko urteetan bezala, Urbietako kaletik abiatuko da lasterketa (Karrero taberna paretik), Ertzainaren etxearen biribilguneetik zuzenean Zinkoeneara jaitsiko da. Ondoren Txirritza kalean gora, A1 eta A2 autobus geltokitik eta Atsegindegi aurretik pasa ondoren, berriro Urbietako kalean sartuko da helmugaraino.

Lehenik, alebinak izango dira lasterketan eta ondoren infantilak. Lehiaketa hauen ondorioz kale hauetan trafiko moztetako izango dira, eta Urbietako autobus geltokia Aristizabal kalera pasako da, anbulatetiko sarriera aurrera, lasterketak irauten duen bitartean. **K**



Portu Auzoko Elkarrekin antolatutako Izabara irteeta.

Izabako elurretara egun-pasa, Portu auzokoak

HERNANI PORTUKO AUZO ELKARTEA Martxoaren 28an hasi zuten Portu auzoko elkarrekin. Izabara irteera egin baitzuten

pasa den larunbatean, hilaren 7an, hain zuzen. Urteko ekintza gisa, elurretara joateko irteera antolatu zuten, eta hainbat

hernaniarrek bat egin zuten, irteerarekin, eta ederki pasa zuten gainera, argazkiarekin erakutsi duten gisan.

Pintxo postua etzi, Institutoko ikasleek

Hernaniko institutuko DBH 2ko ikasleak, pintxo postua jarriko dute etzi Plaza Berrin, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara.

HERNANI DBHKO IKASLEAK

Hernaniko institutuko DBH 2ko ikasleak, proiektu multidisziplinario batean murgilduta daude, 'Bartzelona' izeneko proiektua, hain zuzen.

Pertsona ekimentsuak sortzea helburu dutela adierazi dute, eta horretarako, «ikasleek

hainbat ekintza eramaten ari dira aurrera, dirulaguntzak lortzeko bidaiaren kostua nolabait arintzeko».

Dinamika horretan, etzi, Plaza Berrin pintxo postua jarriko dute, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara bitartean. «Pintxoak euro bateko prezio sinbolikoa izango dute, eta aldi berean, bertaraten direnak ikasleek prestatutako tonbola solidario batean parte hartzeko aukera ere izango dute». Boletoak euro batean salduko dira.

Martxoaren 31n berriz, arratsaldeko 17:00etan, emanaldi bat eskainiko dute, Biterin. **K**

Banakako partidak gaur, musean

HERNANI TXANTXANGORRI

Txantxangorri elkarteak mus txapelketaren barruan, banakako txapelketako bi partida jokatu dira gaur: J. Leon Martiarena eta Ceci Jauregiren artekoa bat, eta Arkaitz Goñi eta J.M. Monrroyren artekoa, bestea.

Hamabi muslari gaur, Xalapartan

HERNANI XALAPARTA

Mus Txapelketan murgilduta daude Xalaparta elkarteak, eta gaur, hamabi bikote ariko dira elkarren kontra, sei partidatan: Jorge-Pablito/Iñaki-Martin; Jose Miguel-Lola/Jesus-Jose Mari; Ruiz-Ruiz/J-J; Koldo-Bokata/Ibai-Huizi; Txema-Goyo/Manu-Xabi; eta Peli-Ramon/Gorrotza II-Gorrotza III.

Itsasoari usaina hartzeko, Pagoetara

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Gaztetxoekin egingo du hurrengo irteera Mendiriz Mendik. Igande honetarako jarri du hitzordua, 08:30etan Biteri kultur etxean. Bertan, autobusa hartu eta Pagoeta mendia izango dute helburu. Aia herritik ekingo diote ibilaldiari, pixkanaka, Ernio txiki izenez ezagutzen den eta bidegurutzez beteta dagoen leku berezira eramango dituen bidetik. Puntu horretatik, Pagoetako gailurra (678m) eta gurutzeta banatzen dituen lepora joango dira, eta handik, eguraldiak eragozten ez badu, itsasoa eta kostaldeko Zarautz edo Getaria herriak ikusi ahal izango dituzte, baita kresal usaina sumatu ere! Gaztetxoentzako prezioa 2 eurokoa da, eta helduentzako prezioa, 6 eurokoa. Ez da mendiko material berezirik behar, baina bai, hamaiketako! Izena gaur eta bihar eman daiteke Iturregi plazako bulegoan.

Legarretaren suzko irudiak, Biterin

HERNANI ERAKUSKETA

Asteartean ireki zuten *Suzko irudiak* izeneko erakusketa, Nagore Legarreta argazkilari hernaniarra, eta hilaren 28ra arte ikusi ahal izango da, Biterin. Bertan, Indian poxpolo kaxa bat erabiltzeko irudiak jaso ditu, haien inguruko azalpen eta bideo batekin batean.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**